

Proiektua: LIFE IREKIBAI. Ibai irekiak: **Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza (LIFE 14 NAT/ES/00186)**

BILERA AKTA –IREKIBAI Proiektuaren itzulera Jardunaldia. Eraiki dezagun elkarrekin gure ibaien etorkizuna

EGUNA: 2016ko ekainaren 30a LEKUA: Bertizko Jaureria, jauregia HASIERA: 17:30 AMAIERA: 19:30	HELBURUA: Informazioa ematea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren eta Proiektuaren Zuzendaritza Batzordearen erabakiaz eta proposamen teknikoaz, prozesuan egindako proposamenei daokienez
---	--

Bertaratuak

Izena	Abizenak	Erakundea	Kargua	Herria
Martín	Urrutia	MENDAUR DBH Doneztebe	Zuzendaria	Doneztebe
M ^a Sol	Taberna Irazoqui	TOKI ONA BHI BERA	Irakaslea	Bera
Enrique	Eraso Centelles	Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua	Biodibertsitatearen Zerbitzuko zuzendaritza	Iruñea
Ana	Palacios Arellano	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua	Ehiza eta Arrantza Ataleko burutza	Iruñea
Cesar	Pérez Martín	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Uraren Zerbitzua.	Uraren Zerbitzuko zuzendaritza	Iruñea
Nekane	Vizcay Urrutia	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Uraren Zerbitzua	Ibaiak Lehengoratzeko Ataleko burutza.	Iruñea
Ignacio	Bergara Bergera	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Uraren Zerbitzua	Oihan ingeniari teknikoa	
Gabriel	Fuentes Nieto	Ingurumen basozaintza. Bidasoa-Leitza aldeko Barrutiko Basozaintza	Basozain Nagusia	Sunbilla
Itsaso	Tapia Alzuguren	CEDERNA - GARALUR. Bortzirriak-Malerreka-Bertizarana Garatzeko Agentzia	Bide berdeko teknikaria	Lesaka
M ^a Carmen	Iribarren Iribarren	BAZTANGO UDALA	UPNko zinegotzia	Elizondo
Jon	Telletxea Juanenea	BEINTZA-LABAINGO UDALA	Alkatea	Beintza Labaien
Josu	Iratzoki Agirre	BERAKO UDALA	Alkatea	Bera
Andres	Etxenike Iriarte	BERTIZARANAKO UDALA	Alkatea	Narbarre
María Teresa	Urroz Oyarzábal	DONAMARIAKO UDALA	Alkatea	Donamaria
Miguel M ^a	Irigoyen Sanzberro	ETXALARKO UDALA	Alkatea	Etxalar
Unai	Loiarte Ansa	Goizuetako Udala	Alkatea	Goizueta
M ^a Jose	Bereau Baleztena	ITURENGO UDALA	Alkatea	Ituren
Xebe	Txoperena	LESAKAKO UDALA	Zinegotzia	Lesaka
Ernesto	Domínguez Olea	ZUBIETAKO UDALA	Alkatea	Zubieta
Paula	Galañena Iriarte	OIEREGIKO KONTZEJUA	Idazkaria	Oieregi
Ana	Urtasun Idiazabal	Nafarroako Ingurumen Zientziako Lizentziatuen Elkarte		Iruñea
Amaia	Angulo Rodeles	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Doktoretza tesia NUPen	Iruñea
Rafa	Miranda Ferreira	Nafarroako Unibertsitatea	Ikertzailea. Zoologia eta Ekologia saila	Iruñea
Juan	del Barrio Iglesias	LURRA. Asociación en Defensa de la Tierra. Nafarroako Ingurumen Kontseilua		Burlata
Miren Gurutze	Pérez Eslava	Ibaiertzeko auzokidea		
Imanol	Luzuriaga Jauregi	Ibaiertzeko auzokidea		Donamaria
Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Ibaiertzeko auzokidea a		Doneztebe
Jorge	Teniente Vallinas	AEMS Ríos con Vida	Presidente AEMS Navarra	Sarriguren
Joseba	Moreno Videgain	Baztango Arrantzaleen eta Ehiztarien Kirol Elkarte	Presidentea	Arizkun
Juan	Otamendi Lasaga	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte		Bera
Prudencio	Quiroga	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	Ingurumeneko kidea	Bera

Luis	Celihueta Latorre	Sociedad de Pescadores de las Nazas	Idazkaria	Iruñea
David	Miranda Elizalde	Sociedad de Pescadores de las Nazas		
Carlos	Gallo	Izokin arrantzalea		Zangoza
Gabriel	Errandonea	Azienda ustiapen ekologikoa	Behin abeltzaina	Bera
Iñigo	Ballarena Galarregui	Balga Energiak, S.L. Asociado de URWATT. Nabasturengo minizentrala	Gerentea	Elizondo
Miguel Angel	Belza Pérez	Donamariako irin errota		Donamaria
Mónica	Migueltorena	Ostaitz S.L.	Erabilera Publikoa Bertizko Parke Naturalean	Oieregi
Luis	Sanz Azcarate	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A:	Irekibai proiektuko koordinatzailea	Iruñea
Pedro Jesús	Castillo Martínez	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A:	Oihan Kudeaketa eta Proiektu alorra	Azkoién
Ana	Varela Álvarez	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A:	Irekibai proiektuko teknikaria	Iruñea
Eva	Zaragüeta	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A:	Irekibai proiektuko teknikaria	Iruñea

Gai zerrenda

- Oieregiko Kontzejuaren ongietorria. Paula Galañena Iriarte
 - Nafarroako Gobernuaren hitzak. Enrique Eraso Centellas
 - IREKIBAI Proiektua. Proiektuaren laburpena. Luis Sanz Azcarate. Uraren alorra. GAN -NIK
 - Parte-hartze prozesua. Parte-hartze publikoaren prozesuaren 1. Fasean izaniko emaitzen aurkezpena. Ana Varela. Komunikazio, Parte-hartze eta Prospektiba Alorra. GAN-NIK.
 - Informazioa ematea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren eta Proiektuaren Zuzendaritza Batzordearen erabakiaz eta proposamen teknikoaz. Cesar Pérez Martín.
 - Parte-hartze Prozesuaren 2. Fasearen proposamena.

Aztergaiak

- Bilera hasi, eta Oieregiko kontzejuaren ordezkaria mintzatu da. Bertan diren guztiei ongietorri eta eskerrak eman dizkie.
- Enrique Erasok Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusi Eva García Balaguerren ezin etorria adierazi du. Hasteko, gogoratu du zer-nolako lanak egin diren orain arte ibaiak hobetzeko. Horrela, kokatu du parte-hartze prozesuaren zer puntutan gauden; itzulera jardunaldia.
- Luis Sanzek **Life Irekibai proiektua aurkeztu du**: jarduketa eremua, aurrekariak, bazkideak, aurrekontua, aurreikusitako jarduketak, etab, eta bukatzeko, eskualdean azalduko diren ildo nagusiak agertu ditu, eta lehengoratzeko lan batzuk ere aurkeztu ditu, bai eta zer ondorio duten ingurumenerako ere, proiektuaren bidez funtsezko zer espezieri egiten zaien mesede azpimarratuta.
- Ana Varelak **Parte-hartze Plana** azaldu du; helburuak, parte-hartze mailak, parte-hartze prozesuaren faseak, eta nola garatu den. Lan taldeek egindako ekintzen eta proposamenen balorazioaren laburpen orokorra ere egin du.
- Anak eta Luisek aurkeztu dituzte proiektuko ekintza bakoitzerako egindako analisia, balorazioa eta proposamenak.
- César Pérez Martínek, bere aldetik, aurkeztu ditu zer **ondorio eta erabaki** hartu dituzten Nafarroako Gobernuak eta Proiektuaren Zuzendaritzak parte-hartze prozesuan bildutako proposamenen gainean, hala jarduketan nola lotura duten gaien gainekoak. Ana presenta la segunda fase del proceso de participación.

[Irekibairen webean](#) ikusgai dago zer aurkezpen egin zen Jardunaldian; hartan, proposamen guztiak zehatz-mehatz azaldu ziren, bai eta horren gainean hartutako erabakia ere.

Ondorio eta erabakien berri emateko saioan, honako gai hauei buruzko kontsultak izan dira, eta honako galdera, iradokizun eta erantzunak jaso ditugu:

Endarlatsako presatik hurbileko bide berdearen ezponda egonkortzea, uholdeak izateko eta ingurua higatzeko arriskua kontuan hartuta. Erantzun da alternatibak aztertu direla, eta hainbat aukera aurreikusi direla, arriskuak kontuan hartuta eta, balorazioa egin ondotik, aukera egokiena eginen da.

Araztegiaren isurketak Donezteben, euria egiten duenean. Badirudi ez dela nahikoa Nilsak emaniko erantzuna, eta berriz ere gogorarazi da gaia aztertzen ari dela, eta aipatu entitateak berrikusiko duela.

Emariak betetzeko arazoa nazetako presan, eta arrainendako eskalaren funtzionaltasuna. Berriz ere gogoratu da emari ekologikoak betetzen ote diren ziurtatze aldera, erregeleta bat paratuko dela, eta gainerako zentraletan, berriz, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Plan Hidrologiko berriko emari ekologiko berriak ezarriko ditu. Presa honek emakida du eta ez daiteke eraitsi, erabiltzen ez diren presendako helburua da.

Eskatu dute Endarlatsako uhateak arrainendako eskala gisa erabiltzeko aukerari buruzko txostena, eta gaineratu dute ez dela hartan parte hartu. Erantzun da txostena [webean](#) egonen dela ikusgai, eta hartatik atera diren ondorioek ez dutela eztabaidarako aukerarik ematen.

Hona hemen Ingurumeneko, Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako Departamentuak itzulera jardunaldian aurkeztutako erabaki nagusiak, parte-hartze prozesuaren emaitzak kontuan hartu ondoren:

1. 2016ra aitzinatu da Berako presaren eraispena eta Berako ubidea betetzea, Berako eta Endarlatsako obra-hondarrak erabiliz. Halaber, Berako udalerrian mapak eguneratu eta uholde arriskuaren kalkuluak eginen dira.
2. Bide berdea konpontzea. Ingurumeneko Departamentuak konpromisoa hartu du finantzaketaren zati bat partekatzeko bide berdeari loturiko toki entitate eta eragileekin, Endarlatsako eraispena baliatuta.
3. **Zalain Zokoko presa txikia eraistea**, Lesakan (Iraungipen-data: 2009/02/11), Ireki bairekin edo Nafarroako Gobernuaren berezko bitartekoekin. 2017an aurreikusia.
4. **Ibilguan erregeletak paratzea** Nazetako emari ekologikoa betetzen dela ikusteko-2016ko abuztua.
5. CHCri honi buruzko interesa helarazi zaio (2016/06/16an helarazi zitzairen, Jarraipen Batzordean):
 - **Emariak hitzartzeko prozesua egitea** plangintza hidrologikoaren baitan.
 - **Ez berritzea iraungitzen diren emakida hidroelektrikoak**, ingurumenaren aldetik sentikorrek diren tarteetan badaude (Lan-ildoak ezar liteke etorkizuneko proiektu baten bidez)
6. **Emarien kontrola hobetzea**, Nafarroako Gobernuaren eta CHCren ekintza koordinatuz
7. Arrantzari buruz egin diren proposamenak helaraztea arrantza Nafarroan kudeatzeari buruzko **parte-hartze prozesura** (2016ko ekaina)
8. Endarlatsako presako **uhateak irekitzearen bideragarritasuna aztertzea**, presa eraitsi beharrean. Iradokizunaren bideragarritasuna baztertu da (2016/06/12an bukatua).
9. **Endarlatsa** 2016ko agorraldiaren bukaeran eraistea.
10. Espedientea irekia dago Toki Entitateek eta Lan Taldeak egindako 22 proposamenari lehengoratzeko ekologikoaz. Bisitak urrira arte eta emaitzei buruzko txostena.
11. Parte-hartze prozesuaren 2. Fasean, proiektuaren ekintzen jarraipena eginen da (lanak, azterlanak...).

Bertzerik: proiektuaren emaitza guztiak argitaratzea: www.irekibai.eu. Irailetik aitzina, boluntariotza programak hasiko dira, bai eta ikasleendako programa eta sentsibilizazio programa ere.

Eta saioa bukatutzat jo da 2016ko ekainaren 30eko 19:30ean.